

REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA
AKTIBITATEAK

“Tratamenduaren arduraduna”	REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA
“Helburua”	REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAren eta REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen komunikazio-kanalen bitartez hartutako edo grabatutako irudiak argitaratzea (irudiak edota bideoak) FUNDAZIOAK antolatzen eta parte hartzen duen jardueren ondorioz. Adibidez, txapelketak, grabaketak eta beren emanaldia www.fundazioa.realsociedad.eus web orriaren bitartez (Gabonetako Alebin Txapelketa, Nazionetako Txapelketak, etc.) bisitak ospitaletara, ikastetxeetara, kultur zentroetara, inaugurazioak eta antzeko naturako jarduerak.
“Legitimazioa”	Interesdunaren legezko ordezkariak onespena
“Hartzaileak”	Datuak REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADi eta ekintzan parte hartzen duten beste entitateei utzi daitezke jarduera jakinarazteko eta sustatzeko, baita tekniko-taktiko txapelketen inguruan.
“Eskubideak”	Datuetan sartu, zuzendu, ezabatu, mugatu, aurkatu eta eramatea, eta “Datuen babeserako informazio gehigarria” atalean azaltzen diren beste batzuk.
“Jatorria”	Interesdunak berak edo haren legezko ordezkariak emandakoak dira datuak.
“Informazio Gehigarria”	“Datuen babeserako Informazio Gehigarria” izeneko dokumentuan kontsultatu dezakezu informazio gehigarria eta zehatza.

- Adierazten dut 14 urte baino gehiago ditudala edo nire legezko ordezkariak baimenarekin jarduten dudala.**
- Tratamenduari lotutako datuen babesari buruzko oinarrizko informazio irakurri eta onartzen dut.**

Titular adingabearen izen-deitura: _____ jauna

Titularra, 14 urte baino gazteagoa baldin ba da:

Aita/ama/tutorea _____

Aitaren/amaren/tutorearen NANA: _____

Aitaren/amaren/tutorearen izenpea: _____

Donostian, 2021 €ko-----aren -----(e)an

“Datuen babeserako informazio gehigarria”

Zein da zure Datuen Tratamenduaren arduraduna?

Jakinazten dizugu zuk eman dituzun datu pertsonalak REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAren erantzukizunpean tratatzen direla, sozietatearen helbidea Arrapide pasealekua, 52, 20160 Donostia/San Sebastian, (Gipuzkoa). Gurekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko helbide honetara idatzi dezakezu: pdcp.fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus

Zein xederekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Jasotako datuak antolatutako ekitaldia sustatzeko ekintzak egiteko dira, hala nola REALEko jokalariek egindako bisitaren grabazio osoa edo partziala, argazkien, bideoen eta antzeko beste bideren baten bitartez, bai eta grabazio horiek REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen komunikazio-kanal ofizialeetan argitaratuta bere jardueren berri emateko ere:

- bisitak ospitaletara,
- ikastetxeetara,
- kultur zentroetara,
- inaugurazioak eta
- antzeko naturako jarduerak.
- Txapelketak.

Txapleketetan jasotako datuei dagokionez, bere garapen egokirako erabiliak izango dira eta baita partida grabaketa eta transmisioa ere, www.fundazioa.realsociedad.eus web orrialdean eta beste komunikazio-kanal ofizialeetan.

Noiz arte gordeko ditugu zure datuak?

Zure datuak tratatu eta gordeko dira, betiere atxikitzen eta onartzen dituzun jarduerak egiteko beharrezkoak badira. Lege aplikagarriaren betekizunak betetzeko ere gordeko dira zure datuak. Zure datuen tratamendua beharrezkoa ez denean, ezabatu edota blokeatuko ditugu, datuak atxikitzeke eta deuseztatzeko dugun politikaren arabera eta indarreko araudiak legezko preskripzio epeen arabera.

Zein da zure datuak erabiltzeko legitimazioa?

Zuk zeuk berariaz emandako baimena da zure datuen tratamendurako legezko oinarria bai eta zure legezko ordezkariak honen bidez pribatutasun baldintzak onartuta ematen duen baimena ere.

Dena dela, hartutako irudiak edo egindako grabazioak erabiltzeko baimena ukatzeak edo baimena kentzeak grabazioak edo irudiak argitaratzeko ezintasuna ekarriko du. Adingabeak sustapen jardueretan ez parte hartzea nahi baduzu (REAL SOCIEDADen plataforma digitaletako argazkiak edo bideoak) berariaz jakinarazi harremanetarako emandako kanaletan, zein adingabe parte hartzaileaz ari zaren jakiteko behar besteko informazioa emanda.

Zein da zure datuen jatorria?

Barruan tratatutako datuak parte hartzaileak berak emandakoak dira edo bere tutoreak edo legezko ordezkariak parte hartzailearen izaera formalizatzean berariaz onartuta emandakoak.

Zer hartzailek jasoko ditu zure datuak?

Bildutako datu pertsonalen hartzaileak REAL SOCIEDAD FUNDAZIOko langileek kudeatuko dituzte, eta argitalpenerako eta aktibitateak antolatzeko beharrezkoak diren REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADeko langileei ere jakinaraziko zaizkie, baita irudi eta grabatutako bideoak parte hartzen duten gainerako entitatei ere.

Era berean, hauek dira datuak jaso ditzaketen eta REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA eta REAL SOCIEDAD DE FUTBOLi edo harekin batera tratamenduaz ardura dutenei zerbitzuak ematen dizkieten beste hirugarren batzuk:

- Microsoftek "lainoan konputatzea" zerbitzuetarako; EBaren barnean eta kontratuetan ezarritako pribatasun bermeari lotutako CRM, ERP eta Bussiness Intelligence delakoak barne.
- Sare sozialak, hala nola Facebook, eta Google +. Datu horien EBtik kanpoko tratamendua, gehienetan, EU-US Privacy Shield (informazioa hemen: <https://www.privacyshield.gov/welcome>) hitzarmenaren babesari edo interesdunaren baimen zehatzari lotutako berme egokien menpe egiten da.

Zein dira zure eskubideak datuak ematean?

Edonork du REAL SOCIEDAD FUNDAZIOA bere datu pertsonalak erabiltzen ari den ala ez jakiteko eskubidea.

Interesa duenak norberaren datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea dauka, bai eta datu desagokien zuzenketa edo, besteak beste, biltzeko erabili ziren helburuetarako jadanik behar ez direnean ezabaketa eskatzeko ere.

Hona hemen REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAk zure eskubideak gauzatzeko zure esku jartzen dituen kontakturako bideak:

- Mezu elektronikoa helbide honetara: pdcp.fundazioa@fundazioa.realsociedad.eus
- Posta bidez edo REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAren bulegoetara gerturatuz: Arrapide pasealekua, 52, 20160 Zubieta, Donostia/San Sebastian (Gipuzkoa).

Eskubidez baliatzeko, beharrezkoa izango da beti interesduna identifikatzea NANaren edo antzeko dokumentu baten bitartez.

Zuk REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAri emandako datuen kopia elektronikoa jaso nahi izanez gero, Entitateak datuak formatu normalizatuan biltzen dituen artxibo atxikia posta elektronikora bidaltzeko aukera dago.

REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAk ahal den guztia egingo du zure datuak beti eguneraturik egon daitezen. Halere, datuen zehaztasunari buruzko erantzukizuna interesdunaren esku dago; hori dela eta, datuetan aldaketarik baldin badago, mesedez jarri gurekin harremanetan ezarritako komunikazio bideen bitartez, aldaketa egiteko.

Era berean, interesdunak bere datuak hirugarrenei jakinarazteko bere datuak erabiltzea nahiz informazio edo publizitatea jasotzea edo erabakien euskarrirako sistema automatizatuetan bere datuak erabiltzea debeka dezake, ezarritako bideak erabiliz, kasu konkretua eta oztopoak zehazten dituen eskaera eginez.

Jakinarazpen elektronikoen kasuan, mezuan bertan, bide elektronikoko horren bidez informazioa eta publizitatea jasotzeari uko egiteko bidea jarriko da erabilgarri.

Zure eskubideen inguruko informazio gehiago jaso nahi baduzu edo dagokion autoritateari erreklamaziorik aurkeztu nahi badiozu, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) webgunean kontsultatu dezakezu, hemen: <http://www.agpd.es/portalwebAGPD/CanalDelCiudadano/derechos/index-ides-idphp.php>.

Datu pertsonalak babesteko segurtasun neurriak.

REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAk datuen erabileraren eta horiek pertsonen eskubideetan duten eraginaren arrisku mailari dagozkion eta beharrezkoak diren eta ezarri beharreko legediak uneoro eskatzen dituen eta eska ditzakeen neurri tekniko eta antolaketarako neurriak hartu dituzte, datu pertsonalen tratamenduaren segurtasuna bermatzeko.

Hala ere, erabiltzaileak jakin behar du gaur egungo Interneteko segurtasun neurriak ez direla gaindiezinak eta, ondorioz, ez dagoela legez kanpoko eta bidegabeko esku hartzeetatik salbu. Esku hartze horiek ez dira REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAren ardurakoak; izan ere, entitateak Legeak zehaztu bezala jokatu du datuen babeserako jardunean.